

Emakumeek historian zehar jasandako zapalkuntza landuko dute dantzaren eta zuzeneko musikaren bitartez

Txintzarri Aldizkaria 2021-10-22 14:00



Gero Axular Dantza Taldeak 'Higa' ikuskizun berria estreinatuko du Manuel Lekuonan. Dantza eta zuzeneko musika emanaldiaz gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek

Gero Axular Dantza Taldeak Higa ikuskizun berria ekarriko du larunbatean, urriaren 23an, Manuel Lekuonara. Estreinakoz aurkeztuko dute gainera jendaurrean. Talde horretako zuzendari eta koreografoa da Juan Luis Unzurrunzaga, eta musikari eta musika zuzendaria Andoni Iparragirre. Lasarteoriatarrek dira biak. Horiekin hitz egin du aldizkariak, ikuskizunaren nondik norakoak biltzeko.

Lehen emanaldia egiteko bi hilabete falta zitzaizkiela, bete-betean harrapatu zituen COVID-19aren osasun krisiak. Ondorioz, aurreikusitako plan guztiak bertan behera geratu zitzaizkien eta "luzea" egin zaie bidea azkenerako.

Lana oholtzaratzeko unea iritsi da, baina horren aurreko prozesuaren berri ere eman dute: "Bi urteko aurreprestaketa lana izan da". Lehenengo urtean ideia zehaztu eta dantza eta musika egokiak bilatzen aritu dira. Bigarren urtean, berriz, sortutako koreografia eta musikak dantzari eta musikariei aurkeztu, eta horien lanketa egin dute: "Musikariak musikara bezala, dantzariak koreografiara egokitze denbora tartea izaten da, eta, nola ez, batzuek besteengana".

Euskal historiaren eta kulturaren pasarte bat ardatz hartu eta gaur egungo gizartean kezka iturri diren gaiei buruzko gogoeta eginez sortzen dituzte ikuskizunak, eta bide horretan osatu dute Higa ere. Lau mende egin dute atzera oraingoan; sorginen garaira. Donibane Lohitzunen (Lapurdi) sorginkeriagatik epaitutako emakumeen kontuak ekarriko dituzte oholtzara. Ikusi ahal izango da, baita ere, emakume horien senarrak Ternuara (Kanada) arrantzan egitera joaten ziren bitartean, nola geratzen ziren euren esku etxeko ardura guztiak, besteak beste. Hori irudikatuko dute, dantzaren eta zuzeneko musikaren bitartez. 70 dantzari, bederatzi musikari eta lau abeslari arituko dira taulagainean.

Mikel Laboaren Baga, biga, higa abesti ezagunetik hartu dute ikuskizunaren izenburua, hitz labur bat izatea nahi zuten, jendeak azkar oroitzekoa.

Kultur etxeko auditorioan izango da emanaldia, 19:30ean, eta sarrerak 5,50 euroan daude salgai. Iparragirrek eta Unzurrunzagak dei egon diete herritarrei emanaldia ikustera gerturatu daitezen.


HIGA aurkezpena



[Kultura](#)

Erantzun ▼

Lasarte-Oria 296 kutsatze atzeman dituzte azken lau egunetan



Zur-nailuren erakusketa igarrita arte egongo da zabalik

Baserrira eta familia oroitzapenetara buelta

Ikusienak



[Aurtengo inauteriekin zer egin erabakitzeko, bilerara deitu du udalak](#)

Txintxarri Aldizkaria urt 17, 13:43 [Kultura](#)



[Azkarra izan da 2022ko lehen ohiko udalbatzarra](#)

Txintxarri Aldizkaria urt 15 [Politika](#)



[Urduritasuna eta ilusioa begietan](#)

[gabonak2021](#)
Txintxarri Aldizkaria
2021 abe 24 [Kultura](#)




['Mi hijo solo camina más lento'](#)

Txintxarri Aldizkaria urt 05 [Kultura](#)



[Harrobiko gurutzea eta eraginkortasun sinbolikoa](#)

Asier Miron urt 11 [Iritzia](#)



[Lasarte-Oria 296 kutsatze atzeman dituzte azken lau egunetan](#)

[Koronabirusa Lasarte-Oria](#)
Txintxarri Aldizkaria urt 17, 14:18 [Gizartea](#)

Ttakun Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa
943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus | txintxarri@ttakun.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)